

**Donostiako Alkatea, Eneko Goia Jaunari**

**PNV-EAJ talde politikoari**

**EHBildu talde politikoari**

**PSE talde politikoari**

**PP talde politikoari**

**IRABAZI talde politikoari**

## **TXILLARDEGI LIBURUTEGIA KULTUR EKIMENA**

Aurreko Lege Aldian, 2014ko urriaren 10ean, Donostiako Udalean erregistratutako eskaeran Donostiako hamazazpi idazlek Udal Liburutegi Nagusia, zentrala, TXILLARDEGI LIBURUTEGIA izenda zedin eskatu zuten.

Hauxe izan zen eskaeraren testua:

"Azpian sinatzen dugun Donostiako idazleok eskaera aurkezten dugu Donostiako Udalean, hiriaren Liburutegi Nagusia "Txillardegi Liburutegia" izenda dezan. Honela, gure hizkuntzari eta gure hiriarri hainbeste eman dion idazlearen oroimenak merezi duen lekua hartuko luke, Koldo Mitxelenak, Carlos Santamariak eta Inazio M<sup>a</sup> Barriolak hartu duten bezala. Urrezko Domina eman zionez, esan gabe doa Donostiako Udalak ezagutzen dituela Txillardegiren merituak bere izena hiriaren barruan txerta dadin kulturaren eta bereziki irakurketaren eragin-gune gisa".

**Sinatzaileak:**

**Ramon Agirre, Jokin Ansorena, Joxe Austin Arrieta, Harkaitz Cano, Rafa Egiuren, Mikel Hernandez Abaitua, Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirre, Ibai Iztueta, Fito Rodriguez, Beñat Sarasola, Ibon Sarasola, Ana Urkiza, Arantxa Urretabizkaia, Dorleta Urretabizkaia, Juan Luis Zabala, Iban Zaldua.**

Donostiako Udalak "Hiritar merezimendu domina" eman zion Txillardegiri kontsentsu handi batez (ez baitzen kontrako botorik izan) hura zendu zenean (duela bost urte), baina gure Donostian beste hainbat kultur eragilek hirigintzan daukaten presentzia bera (Urkixok, Mitxelenak, Santamariak edota Barriolak, esate baterako) Txillardegik ere eduki dezan nahi dugu.

Hamazazpi idazlek aurkeztutako ekimen hura, helbide elektronikoz jasotako atxikimenduekin osatu zen: <http://www.change.org/es/peticiones/donostiako-udalbatzari-euskararen-eremuan-egin-zuen-lan-izugarriaren-onarpen-gisa-txillardegi-izena-jartzea-donostiako-liburutegi-nagusiari>. Denetara milaka izan ziren ekimen honen bidez beren adostasuna azaldu zuten euskal herritarrek.

## **UDALBATZA BERRIARI ESKAERA**

Donostiako Liburutegi Nagusiari "Txillardegi" izena jartzeko ekimena hainbat euskaltzalek abian jarri genuenetik bost urte pasa diren une honetan, Donostiako Alkate, Udal Gobernu eta Udalbatza berria dugu, hori izan baita donostiarron nahia. Hori dela eta, TXILLARDEGI LIBURUTEGIA Kultur Ekimena, orduan egin zuen moduan, oraingoan ere eskaera bera egitera dator, uste dugulako Txillardegiri euskalgintzaren eremuan egindako ekarpenagatik mota honetako onarpena zor zaiola Donostian. Euskaltzaleok ez dugu inola ere etsi nahi guztiz bidezkoa deritzogun eskaera honetan, eta horregatik gonbidatzen dugu Udalbatza berria Donostiako hamazazpi idazle haiek abiarazitako eskaera honekin bat egin dezan.

Gure eskabide berri hau indartzeko asmoz, Donostian antolatu zen Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroan, DONOSTIAKO PROTOKOLOA aurkeztu zen egunean, sinadura berrien bilketa egin genuen eta baita berrehundik gora aditu, politikari, sindikalista eta eragile sozialetako kideen sinadura eskuratu ere. Hemen duzue bilduma txiki bat:

## **EHU-UNIBERTSITATEA**

1.- Fito Rodriguez	EHU-Unibertsitatea
2.- Iñaki Marko	EHU-Unibertsitatea
3.- Kepa Sarasola	EHU-Unibertsitatea
4.- Aitzpea Leizaola	EHU-Unibertsitatea

## **UEU-UNIBERTSITATEA**

1.- Lore Erriondo	UEU-Unibertsitatea
2.- Iñaki Alegria	UEU-Unibertsitatea

## **KULTURGINTZA**

1.- Jose Mari Sors	Elkar
2.- Jon jaka	Elkar
3.- Iñaki San Bagues	Elkar
4.- J.M. Agirretxe, "Porrotx"	Pailazoa
5.- Josu Tellabide	Etnologoa
6.- Olatz Beobide	Artista
7.- Eñaut Gantxegi	Artista
8.- Castillo Suarez	Idazlea
9.- Joan Mari Larrarte	Berria
10.- Lorea Agirre	Jakineko Zuzendaria
11.- Joxe Austin Arrieta	Idazlea
12.- Joxe Mari Auzmendi	HikHasi aldizkaria

13.- Paulo Agirrebaltzategi	Kulturgintza
14.- Koro Etxeberria	Antzerkia
15.- Xabier Etxaniz	Idazlea
16.- Arantxa Urretabizkaia	Idazlea
17.- Olatz Altuna	Klusterra
18.- Asier Basurto	Klusterra
19.- Jabier Zabaleta	Euskara Teknikaria
20.- Xabier Mendiguren	Kontseiluko lehendakari ohia
21.- Fermin Leizaola	Antropologoa
22.- Kote Camacho	Bideo egilea
23.- Mari Pilar Garcia Negro	Aditu galiziarra
24.- Hasier Etxebarria	Idazlea

## KAZETARITZA

1.- Martxelo Otamendi	Berriako Zuzendaria
2.- Iñaki Uria	HamaikaTB
2.- Felix Ibargutxi	Kazetaria

## EUSKALTZAINDIA

1.- Sagrario Aleman	Euskaltzaindia
2.- Patxi Uribarren	Euskaltzaindia

## EUSKALGINTZA

### a) Kontseilua

1.- Garbiñe Petriati	Behatokia-UEMA
2.- Iker Salaberria	Kontseilua
3.- Zigor Etxaburu	Kontseilua
4.- Haizpea Abrisketa	Kontseilua

### b) Ikastolen Mugimendua

1.- K.A. Tellitu	Ikastolen Mugimendua
2.- Jose Luis Sukia	Ikastola Mugimendua
3.- Hur Gorostiaga	Ikastolen Mugimendua
4.- Kontxita Beitia	Ikastolen mugimendua

### c) AEK

1.- Idurre Lekuona	AEK
2.- Oskar Elizburu	AEK
3.- Oihana San Jose	AEK
4.- Carlos Almanacio	AEK
5.- Lurdes Gauna	AEK
6.- Iñigo Ruiz de la P	AEK
7.- Kristina Gorostidi	AEK

**d) IKA**

1.- Joxerra Olano IKA

**e) Topagunea**

1.- Oskar Zapata Topagunea

**f) Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte**

- 1.- Dani Goñi
- 2.- Idoia Trenor
- 3.- Mikel Urdangarin
- 4.- Aitziber Gurutzeaga
- 5.- Carmen Urretabizkaia
- 6.- Begoña Etxeberria

**g) Euskal Herrian Euskaraz**

1.- Urko Aierbe EHE

## **Hizkuntza Aholkularitza enpresak**

- |                      |                            |
|----------------------|----------------------------|
| 1.- Helene Armentia  | Elhuyar-Euskara teknikaria |
| 2.- Lurdes Ansa      | Elhuyar-Euskara teknikaria |
| 3.- Alfonso Mujika   | Elhuyar-Euskara teknikaria |
| 4.- Juanjo Perez     | Elhuyar-Euskara teknikaria |
| 5.- Anaida Agirre    | EMUN                       |
| 6.- Marije Manterola | EMUN                       |

## **HAUTETSIAK**

**a) Alkate eta zinegotziak**

- |                          |                          |
|--------------------------|--------------------------|
| 1.- Julen Mendoza        | Hautetsia Alkatea        |
| 2.- Juan Karlos Izagirre | Hautetsia Alkate ohia    |
| 3.- Antton Izagirre      | Hautetsia Alkatea ohia   |
| 4.- Nerea Txapartegi     | Hautetsia Zinegotzi ohia |
| 5.- Garbiñe Zurutuza     | Hautetsia Alkatea        |
| 6.- Karmele Aierbe       | Hautetsia Zinegotzia     |
| 7.- Jon Iñarra           | Hautetsia Alkate ohia    |
| 8.- Pilar Legarra        | Hautetsia Alkatea        |
| 9.- Zefe Ziarrusta       | Hautetsia                |
| 10.- Xabier Arregi       | Hautetsia Alkatea        |
| 11.- Amaia Almirall      | Hautetsia                |

**b) Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiak**

- |                  |                           |
|------------------|---------------------------|
| 1.- Ainhoa Beola | Hautetsia Batzar NagusiaK |
| 2.- Mikel Irizar | Foru Aldundia             |

**c) Hego Euskal Herriko bi Legebiltzarretako kideak**

- |                      |                           |
|----------------------|---------------------------|
| 1.- Maddalen Iriarte | Legebiltzarkide-kazetaria |
|----------------------|---------------------------|

- |                   |                                 |
|-------------------|---------------------------------|
| 2.- Laura Mintegi | Legebiltzarkide ohia-idazlea    |
| 3.- David Anaut   | Hautetsia Nafar Legebiltzarrean |
| 4.- Xabier Isasi  | Gasteizko Legebiltzar kide ohia |
| 5.- Rebeka Ubera  | Legebiltzarkidea                |

**d) Europar Legebiltzarra**

- |                      |                              |
|----------------------|------------------------------|
| 1.- Koldo Gorostiaga | Europar Legebiltzarkide ohia |
| 2.- Izaskun Bilbao   | Europar Legebiltzarkidea     |
| 3.- Josu Juaristi    | Europar Legebiltzarkidea     |

Bistan da Donostiak garrantzi handia duela Txillardegiren literaturan, gogoratzea besterik ez dago *Haizeaz bestaldetik* (1979) edo nobela historikoa den *Putzu* (1999). Horretaz gain, merezitako azterketak argitaratu zituen bi toki bereziri buruz: *Antigua 1900* (Kutxa, 1991) eta *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (Kutxa, 2004) eta hau guztia burutzeko dokumentazioa aritu zen arakatzen bere izena eraman dezala eskatu den liburutegian.

Hala eta guztiz ere, Txillardegiren merituak ez dira literarioak soilik, egungo euskararen Donostia ezin baita ulertu ere egin berak gure hizkuntza biziberritzeko emandako lan eskergea kontuan hartu gabe. Horra bere izana, bizirik irauten duena. Eta euskara erabiltzen dugun bakoitzean Txillardegiren itzala azaldu arren, aurrean izan nahi dugu bere deitura ere, bere moduko besteak bezainbeste behintzat, gure hiriko izendegian.

**Txillardegiren heriotzaren V. urteurrena beteko den urtarrilaren 14aren atari honetan, gure proposamenaz aritzeko, Donostiako Alkatea den Eneko Goiari eta Donostiako Udaleko indar politikoen ordezkariari bilera egiteko deia luzatzen diegu.**

**TXILLARDEGI UDAL LIBURUTEGIA EKIMEN**Aren izenean:

Josu Tellabide. 652776057 [josutellabide@gmail.com](mailto:josutellabide@gmail.com)

Dani Goñi. 636031429 [danielgoni@euskalnet.net](mailto:danielgoni@euskalnet.net)